


Zer erran nahi du zuhaitzak kimatzeak?

Zuhaitz kimatua ez da zuhaitz mota bat, zuhaitzak zaintzeko eta ustiatzeko modu bat baizik. Zuhaitzaren enborra moztu ordez, adarrak mozten zaizkio. Horrela, 10/15 urte guziz egurra ekoitz daiteke, zuhaitza enborretik moztu gabe. Hau da, egurra ekoizteko manera jasangarri bat da.

Zein zuhaitz mota da egokia jarduera honetarako?

Zuhaitz hostotsu mota kasik guziak. Gehien baliatu izan direnak zume zuria, xarma arrunta, haritz kanduduna, haritz kandugabea, makal beltza, zumar hostotxikia, zumar dilindaria, zumar hostozabala, lizarra, astigarra eta platanondoa dira. Euskal Herrian pago, haritz eta gaztainondo anitz ditugu, beraz toki egokia da jarduera honetarako.



Zein da zuhaitzak kimatzearen historia Euskal Herrian?

XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan Sarako, Urruñako eta Berako oletan aktibitate handia bazen. Horrek inguruko mendien deforestazioa ekarri zuenez, egurraz gain, beste erregai bat ekoizten hasteko beharra izan zuten: egur ikatza. Azken hau tokiko baliabide ekonomiko garrantzitsua izan zen, saltzen edo trukutzen zena. Olen aktibitatea bukatzean ere, industria horrek aitzina segitu zuen, karobietarako edo etxeko beharretarako baliatzeko.

1900/1950 urteetara arte, Euskal Herrian zuhaitz anitz kimatzen segitzen zen. Garai horretan, animaliak bazkatzeko, inaurkinetarako eta berotzeko beharra handia zen. Ekoizten zen egurra horretarako baliatzen zen: bazkarako, inaurkinetarako, eraikitzeke eta berotzeko. Baina 1950ko hamarkadatik landa, beharrak aldatu ziren. Pixkanaka, egurraren beharra apaltzen joan zen, izan ere, elektrizitate eta gasarekin, gizakiak energia ekoizteko modu berriak sortu zituen. Zuhaitzen kimatze lanak bertan behera gelditu ziren.

Zertarako balio dute kimatutako zuhaitzek gaur egun?

Zilo anitz dituztenez, zuhaitz hauek bioaniztasun handia ahalbidetzen dute. Izan ere, zilo horietan espezie anitz bizi da: hegaztiak (urubia, okil berdea, argi-oilarra, garrapo eurasiarra...),

ugaztunak (urtxintxa, lepazuria, martesa, saguzarra...), intsektuak (kakalardo eremita, armiarmak, xinaurriak...), eta baita hainbat landare ere. Zuhaitz hauek zaintzeko modurik onena kimatzea da. Ez badira mantentzen, zuhaitz hauek hilko dira.

Erregulariki kimatzen badira, ekonomikoki errentagarriak izanen dira, batez ere laborarientzat, egurra ekoiztuz diru-sartze gehigarri bat ukaten ahal baitute.

Kimatutako zuhaitzetan bizi den espezie bat:

Kakalardo eremita (*Osmoderma eremita*) Scarabaeidae familiako kakalardo mota bat da. Desagertzen ari den espezie bat da, mehatxatua dena, eta babestua. Ereku baten aberastasun naturalaren adierazle da, zuhaitz zaharretan, kimaturiko zuhaitzetan edo egur hilean aurkitzen baita. Zuhaitzetako ziloetan bizi da. Ugalketa garaian, helduak ez dira 500 m baino gehiago urruntzen. Beraz, garrantzitsua da zuhaitzen artean hurbiltasun bat izatea, arriskurik gabe mugi daitezten eta gene ezberdinak dituzten kakalardo berriak atzeman ditzaten (odolkidetasuna saihesteko).

Zuhaitz kimatuetan bizi diren espezie batzuen argazkiak:

Urtxintxa



Lepazuria



Saguzarra



Urubia



Argi-oilarra



Okil berdea

